

Bixente Barandiaran



Foxal

946ko martxoan
Itsasondotik

Altzara etorri zenetik
bertan bizi da. Hantxe,
bere Garbera baserrian

Bixente, lanik egin gabe ezin bizi

aurkitu genuen Bixente Barandiaran;
Benidormetik etorri berria,
larrua beltzituta,
moreno zegoen.
Berriketan ia bi orduz
jardun ondoren bertso
batzuk ere egin zizkigun.
Hiru afizio ditu:
irakurtzea, idaztea eta jokoan aritzea.
Kartetan, azken boladan
txintxonean jarduten omen
da gustora. Irakurtzeko
euskaraz hobeto moldatzen da
erderaz baino.
Auzoko elizan Bixentek
irakurtzen du igandero.

ALTZARA ETORRI ZINENETIK
ORAINA ZERTAN ALDATU DA
ALTZA?

Ni etorri nintzenean he-
men hoge bat baserri zeu-
den, herri inguruan zeuden
etxeak, eta kalekorik bate-
rez, apaiza edo irakaslea
salbu. 1969. urtean hasi
ziren Larratxon obrak egi-
ten, oso leku txikian etxe-
bizitza asko egin zituzten.
Dena bete zen kanpoko
jendearekin. Guretzat dis-
gustua izan zen, ehuneko
hamarra bakarrik gelditu
ginelako euskaldunak, eta
itota bezala gelditu ginen.
Baina, denetara jarri behar
da, eta erdaldunak ere
lagunak egin ditugu.

«Anaiak» taberna hartu

behar. Akabo horrekin gu-
re etxe pareko pakea.

Nik uste dut, gure urte-
tako denboran egin den
kanbioa beste horrenbeste
urtetan egitea kostatuko
dela. Bizimoduak aldaketa
ikaragarria egin du.

Aldaketarik haundiena
somatu dut gaztainekin.
Nik hamalau urte nituene-
an gure aita zenak esaten
zidan egunean 30 kilo bil-
tzeko harentzat, eta han-
dik aurrera biltzen nitue-
nak nerretzat. Sei anega
gaztaina bildu nituen (a-
nega bakoitzeko 40 kilo),
Ordizira eraman eta hiru
pezetan saldu nituen...

ZEIN BIZIMODU DABILKIZU,
LAGUNARTERIK BAI?

genuen herriko kaskoan,
denak biltzen ginen ber-
tan, erdaldunak ere ezagu-
tu egin ditugu, eta zer nahi
duzu esatea, denetik dago
baita gure artean ere.

KANPOTIK ETORRITAKO JEN-
DEA EUSKALDUNTZEN AL DA?

Erdaldunen haurrak
jaunartzea euskaraz egiten
jarrita daude, eta ikastola-
ra ere bildaltzen dituzte.
Baditut lagunak, bilobak
euskaraz hitz egiten ikus-
teagatik pozten direnak.

ZER DIOZU GARBERAN
EGIN BEHAR OMEN DUTEN
HIPERMERKATUAZ?

Horrek molestaturako
gaitu, baina ezetz esaterik
ez dago eta aguanta egin

Asteartero elkartzen ga-
ra, Donostiako taberna ba-
tean lagunartean, eta hantxe
egiten dugu hamaiketako
eta berriketa, Joakin Zubiria
zarauztarra, Roke Aran-
berri, Jose Atin Gabirikoa...

BERTSOLARI BAKARRIK EZ,
IDAZLE ERE BAZARA...

Bai, liburu bat idatzi
nuen eta bigarrena ere
martxan daukat. Aita Za-
balak laguntzen zidan.
Baina lanpetuta dabil eta
esan zidan piskatean itxoi-
teko. Menditan eta errome-
ritan eta gertatutako kon-
tuak sartzen ari nintzen
oraingoan.

ZEIN IZANGO DA LIBURU
BERRIAREN IZENA?

«Lanik egin gabe ezin bizi». Aurrekoari jarri nion «Zahartu gabe ezin bizi», eta Joserra Gartzia, etorri zenean esan zidan, hurrengoari izenburu hau jartzeko, nik ez nekiela lanik egin gabe bizitzen eta.

BERANDU SAMAR HASI ZINEN IDAZTEN. ZERGATIK?

Aita Zabala bera etorri zitzaidan neri, egunkarirako euskarazko kronikak falta zirela esanez, eta idazteko. Han hasi eta gero, neronek esan nion, liburu bat ere idatziko nuela.

BERTSO KONTUTAN IBILTZEN AL ZARA ORAINDIK?

Oraindik ere eskatzen dizkirate handik eta hemendik.

24 urterekin atera nintzen baseritik. Hona etorri, etxea erosi eta zorren menpe jarri nintzen; zorra lagun txarra da gizonarentzat. Ni estutuarazi ninduen, eta bertsoa lagarazi urte batzutan.

Behin tabernan geundela Altzan, neronek hemen apopilo neukanak animatu ninduen piska bat eta hala hasi nintzen berriz. Orduan zabaldu zen bertsolari nintzela, eta deitzen zidaten inguruko tokietara hasi nintzen joaten bertsoara.

Orain zahartu egin na-

iz, eta ez naiz joaten.

NOLA DABIL BERTSO MUNDUA?

Bertso kontua beste gauza asko bezala nahasten ari da. Lehengo bertsolariak zuten afizioa elkarri disparateak esatea zen, elkarri gaizki hitzegitea. Baserrik esaten zuen ondo hitzegitea adina kostatzen zela eta horretara jarri ziren bertsolariak, minik behintzat ez ematera. Oraingo bertsolariak atzera egin dute berriz, disparate batzuk atera, xelebrekeria batzuk esan ta, berdekerian aurreragi. Eta gero toki eta egun guztietan dabilenez bertsoa, ez dakit, lehen aditzeko pozez egoten ginen, eta orain berriz...

ZER DIOZU NESKA BERTSOLARIEZ?

Bueno..., «fuera de serie» batzuk badaude hor. Emakumeak sartu izana pozgarria izan da. Lehen ere baziren baina ez ziren sekula plazara atera. Oraingo hauek berriz, haundi samarrak


esateko batere ez dira kokiltzen, eta ez dira berde kontuekin ikaritzen.

ETA BESTE BERTSOLARI HAUNDIAK?

Hor badira hogeit bat bertsolari haundi. Egaña, Euzkitze, Sarasua, Murua eta beste gehiago. Sarasua, txilibitu samarra da, gogo ematen dionean igoal haizea hartzera bidaltzen du bertso asuntoa ta, baina bertsolari samurra da, bertsolari haundia.

Egaña berriz hor atera da denen gaintetik, eta uste dut aurreko muturrean ibi-

liko dela puska batean. Bertsolaria jotzen dut karrerista bat bezala, batzuk gora onak, beste batzuk ordekan trebeak eta besteak goitik behera ondo ibiltzen direnak. Baina denetan onak direnak hiru edo lau izaten dira. Bertsolariak behar du, bertsoan ondo egin, arrazoiak ematen ere ondo, jende artean eta gero bazkaltzera joaten denean kontestazioak ematen jakin, txiste eta historio batzuk kontatu eta, jendea berari entzuten edukitzen baldin badu, hari deituko diote.



Egunkarian kronikak idazten ditu, eta gainera bere bigarren liburua idazten hasia da.

Roxal

NERE LAGUN BATI

Iru edo lau berso
nai nituzke jarri
jendeak jakin dezaten
zerbait nere berri
neska gazte bat atzo
zitzaidan etorri
bere bisita izan zan
neretzat pozgarri.

Ikusi nuan berekin
zer desero zuan
Iru txulo goratu nahi
intentzio osuan
galderak egiten zizkidan
iripar gosuan
ondo erantzutera
ark merezi zuan.

Errebista argitaratu
nai dute astero
errez egin litezke
saiatu ezkeru.
Lagunka faltatzerik
nik ez det espero
ori ondo iukusita
dago onuzkeru.

Nere eginkizun au
ondo nai det bete
geiago egitea ere
saiatu liteke
euskarai laguntzea
nola ezdun kalte
noiz nai deitu zazute
beartzen bazerate.

BIXENTE BARANDIARAN